

# DIZIPLINAZKO ERREGIMENAREN ARAUTEGIA

2024ko abenduko edizioa



Euskal Eskubaloi Federazioa  
Federación Vasca de Balonmano

## AURKIBIDEA

ATARIKO IZENBURUA: ARAUTEGIAREN HELBURU ETA APLIKAZIO-EREMUARENA.....	2
I. IZENBURUA: XEDAPEN OROKORRENA.....	2
II. IZENBURUA: ARAU-HAUSTE ETA ZIGORRENA .....	2
I. Kapituluua: Xedapen orokorrak.....	2
I. Atala: Irizpide Nagusiak .....	3
II. Atala: Kirol diziplinazko erantzukizuna aldatu ahal duten zirkunstantziak.....	4
III. Atala: Kirol diziplinazko erantzukizunaren iraungipenerako arrazoiak .....	5
II. Kapituluua: Joko Arauen arau-hauste eta bere zigorrena .....	6
I. Atala: Jokalariak eginiko arau-hauste eta bere zigorrena. ....	6
II. Atala: Arbitroen taldeko kideek eginiko arau-hauste eta bere zigorrena .....	8
III. Atala: Entrenatzaileak, entrenatzailearen laguntzaileak, laguntzaile eta medikuek eginiko arau-hauste eta bere zigorrena .....	10
IV. Atala: Taldeko ofizialek eta klubeko zuzendariak eginiko arau-hauste eta bere zigorrena .....	11
V. Atala: Klubek eginiko arau-hauste eta bere zigorrena .....	12
III. Kapituluua: Kirol Arau Orokorren arau-hauste eta bere zigorrena.....	19
III. TITULUA: DIZIPLINAZKO PROZEDURENA .....	22
I. Kapituluua: Irizpide Nagusiak.....	22
II. Kapituluua: Kirol Diziplinazko Organizazioarena .....	25
I. Atala: Lehiaketa Batzordea.....	25
II. Atala: Apelazio Batzordea.....	26
III. Kapituluua: Ohiko Prozedurarena .....	26
IV. Kapituluarena: Ez ohiko Prozedurarena .....	27
V. Kapituluua: Jakinarazpenak eta Errekurtsoak .....	29

**ATARIKO IZENBURUA: ARAUTEGIAREN HELBURU ETA APLIKAZIO-EREMUARENA**

**1. Artikulua:**

Diziplinazko Erregimenaren Arautegi honen helburua arau-hauste eta zigorren erregimen nahiz honekin lotutako diziplinazko prozedurei dagokionez Euskal Eskubaloi Federazioaren kirol diziplinazko ahala arautzea da.

**I. IZENBURUA: XEDAPEN OROKORRENA**

**2. Artikulua:**

1. Kirol diziplinazko ahala Euskal Eskubaloi Federazioari bere kirol diziplinaren mendean dauden pertsonak ikertu eta, bere kasuan, zigortzeko onartzen zaion eskumena da.

2. Jokoaren Arau Teknikoak aplikatuz arbitroei esleitutako partiduak zuzentzeko eskumena ez da diziplinazko ahalaren jarduera kontsideratuko.

**3. Artikulua:**

1. Euskal Eskubaloi Federazioaren diziplinazko ahalaren jarduera bere egitura organikoa eratzen duten pertsona ororengana hedatzea, kirol klub, jokalaria, ofizial, arbitro eta orokorrean, pertsona eta erakunde haiek guztiak zein bertan federatuta egongo baitira.

2. Diziplinazko erregimena joko- eta lehiaketa-arauden arau-hausteetara hedatzen da, baita kirol arau orokorren arau-hausteetara ere, zein Euskal Herriko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean, diziplinazko ahala arautzen duten arautegiko xedapen publikotan, eta Euskal Eskubaloi Federazioaren Estatututan nahiz Arautegi honetan aurreikusitako arau-hausteetan tipifikatuta baitaude.

3. Diziplinazko ahala arau-haustek autonomia eremuko jarduera ala lehiaketetan gertatzen direnean eta eskusiboki lurralde lehiaketak diren haietan burutuko da, Euskal Eskubaloi Federazioak emandako lizentziak dituzten jokalariek parte hartzen dutenean eta emaitzak autonomia eremuan ofizialki homologatu ahal direnean.

**II. IZENBURUA: ARAU-HAUSTE ETA ZIGORRENA**

**I. Kapituluak: Xedapen orokorrak**

## **I. Atala: Irizpide Nagusiak**

### **4. Artikulua:**

Subjektu berdinari ezin ahal izango zaio ekintza berdinentatik diziplinazko zigorra ezarri, Arautegi honetan aurreikusitako zigor osagarriaren kasuetan izan ezik.

### **5. Artikulua:**

Dagokion arau-haustearen batzordean aurretiaz tipifikatu gabeko zigorrik ezin ahal izango da ezarri. Hala ere, diziplinazko xedapenek erruztatuak babesten dituzten neurrian atzeraeraginezko izaera izango dute, ebazpen irmoa ezarri izan balitzaie ere, betiere zigorra bete gabe legokeen kasuan.

### **6. Artikulua:**

1. Kirol diziplinazko ahala gauzatzekoan diziplinazko organoek arau-hauste bakoitzari dagokion zigorra ezarri ahal izango diote, ekintzen jatorria, arau-haustearen asmoa, arau-haustearen emaitza hala nola bere kontsumazio maila kontuan izanik.

2. Hala ere, zirkunstantzia aringarri eta/edo larrigarrien kasuan, eskumeneko organoaren betebeharra izango da:

- a. Zirkunstantzia aringarriak soilik biltzen badira, zigorra maila minimoaren arabera aplikatuko du.
- b. Zirkunstantzia larrigarriak soilik biltzen badira, zigorra bere maila ertain ala gorenean aplikatuko du.
- c. Zirkunstantzia aringarriak nahiz larrigarriak biltzen badira, bere izaeraren arabera zentzuzko moduan konpentsatuko dira.

### **7. Artikulua:**

Dagokion diziplinazko espedientearen arabera ezarritako zigor guztiak, joko-arau nahiz kirol arau orokorretako arauekin lotutako arau-haustearen ondorioz, berehala beteko dira, dagozkion errekursoen berri izan behar duten federazio, administrazio ala jurisdikzio organoek eskuragarri dituzten kautelazko zigor eskumenei utzi gabe.

**7 BIS. Artikulua:**

Kirolari, teknikari eta arbitroei nahiz pertsona juridikoei bere jarduerarengatik ordainsariak ala konpentsazioak jasotzen dituztenean soilik ezarri ahal izango zaie isun ekonomikoa.

**II. Atala: Kirol diziplinazko erantzukizuna aldatu ahal duten zirkunstantziak**

**8. Artikulua:**

Kirol diziplinazko erantzukizunetik libre uzten duten zirkunstantziak dira ustekabeko kasua, ezinbestean eginikoa, defentsa legitimoa, erabilitako baliabide eta proportzionaltasunaren arabera, baita eskumeneko organoaren irizpidearen arabera kontsiderazio berezia merezi duten beste hainbat arrazoi ere.

**9. Artikulua:**

Ondorengoak kirol diziplinazko erantzukizuna arindu ahal duten zirkunstantziak dira:

- a. Arau-haustea burutu aurretik behar adinako probokazio bat egon izana.
- b. Diziplinazko prozedura ireki dela jakin aurretik eta bat-bateko damuaren ondorioz errudunak hutsegitea konpondu nahiz eraginak murriztu, iraindua asebate ala hura eskumeneko organotan aitortzeari ekin izana.
- c. Bere kirol historialean inoiz zigortua gertatu ez izana.
- d. Aurrekoen esanahi berdina izango lukeen beste edonolako zirkunstantzia.

**10. Artikulua:**

Ondorengoak kirol diziplinazko erantzukizunaren zirkunstantzia larrigarriak dira:

- a. Berriro egitea. Hau autorea lehenago larritasun berdin ala handiagoko edonolako arau-hausterengatik, ala eskuartean izaten den kasuari dagokionez larritasun urriagoko bi ala arau-hauste gehiagorengatik zigortua izan denean gertatuko da.  
Berriro egitea, arau-haustea burutu den unetik hasita kontatutako urtebeteko epean zehar gertatu dela ulertuko da.
- b. Ageriko jakinaren gainean egitea.
- c. Arau-haustea prezio, promesa ala sariaren bidez burutzea.
- d. Nagusitasunaz gehiegi baliatzea ala defentsa ahultzen duten baliabideak erabiltzea.
- e. Jokalari, ofizial, arbitro, zuzendari nahiz beste edonolako zuzendaritza karguaren lizentziaren jabe izanik ikusle bezala edonolako arau-hauste burutzea.

## **11. Artikulua:**

Zigortuei bere birgaitzea eskatzeko aukera onartzen zaie, ondoriozko aurrekarien ezeztapenarekin, zigorra betetzen denetik kontatutako hurrengo epeetan:

- a. Sei hilabete barru, zigorra hutsegite arinarengatik ezarri izango balitz.
- b. Bi urte barru, zigorra hutsegite arinarengatik ezarri izango balitz.
- c. Lau urte barru, zigorra hutsegite oso larriarengatik ezarri izango balitz.

Birgaitzea zigorra ezarri zuen organo berdinarean aurrean eskatuko da, eta prozedura epaiketa nahiz hutsegitearen zigorrerako jarraitutakoa izango da, errekurtsio berdinekin.

### **III. Atala: Kirol diziplinazko erantzukizunaren iraungipenerako arrazoiak**

## **12. Artikulua:**

1. Kirol diziplinazko erantzukizuna edozein kasutan iraungitzen da:

- a. Zigorra betetzeagatik.
- b. Arau-haustearen aginduz.
- c. Zigorren aginduz.
- d. Erruztatu ala zigortuaren heriotzagatik.
- e. Erruztatutako ala zigortutako kirol erakundea iraungitzeagatik.
- f. Zigorra barkatzeagatik.

2. Federatu izaera galtzea, ezarritako zigorren eraginkortasuna hainbat kasutan eragin ahal badu ere, ez da diziplinazko erantzukizuna iraungitzeko arrazoia izango.

## **13. Artikulua:**

1. Arau-haustea hiru (3), urtebete (1) ala hilabete (1) barru preskribatuko dira, arau-hauste oso larriak, larriak ala arinak izatearen arabera hurrenez hurren. Epea arau-haustea beteko litzatekeen egunetik hasita kontatuko da. Etengabeko jardunetik eratorritako arau-hausteetan, zenbaketaren hasiera data jardueraren amaierarena ala azkeneko jarduerarena zeinekin arau-haustea kontsumatuko baita izango da.

2. Aurre-inskripzioaren epea prozedura zigortzailearen hasiera jakinarazten den unean etengo da. Prozedura hau hilabete baino gehiagoren zehar geratuta mantenduko balitz, prozedura horrekin lotutako

pertsona ala erakunde arduradunari egotzi ahal zaion arrazoiarengatik, berriro dagokion epea martxan jarriko litzateke.

3. Arau-hausteak hiru (3), urtebete (1) ala hilabete (1) barru preskribatuko dira, arau-hauste oso larriak, larriak ala arinak izatearen arabera. Epea zigorraren ezarpenarekin lotutako ebazpena finkatzen den hurrengo egunetik ala hau hasita balego bere betetzea hausten den unetik hasita kontatuko da.

## **II. Kapituluak: Joko-Arauen arau-hauste eta bere zigorrak**

### **14. Artikulua:**

1. Arau-hausteak bi motakoak izan ahal dira, hau da, joko ala lehiaketekin lotutako arau-hausteak eta kirol izaerako arau orokorren arau-hausteak.
2. Joko ala lehiaketa araei dagokionez eginiko arau-hausteak jarduerak ala ez egiteak lirateke zeinek joko ala lehiaketan zehar hauen garapen normala kaltetu, eragotzi ala nahasiko bailukete.
3. Arau-hauste horien autoreak Jokalariak, Entrenatzaileak, Ordezkariek, Zuzendariak, hala nola Arbitro Talde nahiz Klubetako Kideak izan ahal dira.

### **I. Atala: Jokalariak eginiko arau-hauste eta bere zigorrak.**

### **15. Artikulua:**

1. Ondorengoak arau-hauste oso larri bezala kontsideratuko dira:
  - a. Jokalari, arbitroen taldeko kide ala zuzendari bati, kirol zuzendari, taldeko kide ala, orokorrean, edonolako pertsonari eginiko erasoak, ekintza hura bereziki larria ala kaltegarria denean.
  - b. Jokalaria zeinek beste jokalaria baten erasoak aldaratuz modu analogoan jokatuko bailuke.
  - c. Federazio lizentzietan eta/edo hauek bideratzeko edonolako beste beharrezko dokumentutan islatutako datuen egiazkotasunik eza ala engainuzko aldatzea, betiere bere erantzukizuna onartuko balitz.
  - d. Bi ala klub gehiagok federazio lizentzia izenpetzea.
  - e. Partiduaren behin betiko etetea ala bere hasiera eragozten duten ekintzak burutzea.
  - f. Larria ala oso larria bezala kalifikatutako arau-hauste batek ezarritako zigorra haustea.
2. Arau-hauste oso larriak bi (2) ala lau (4) urteko eperako aldi baterako gaitasungabetzearekin zigortuko dira.

**16. Artikulua:**

1. Arau-hauste larriak bezala kontsideratuko dira ondorengoak:

- a. Jokalari, arbitroen taldeko kide ala zuzendari bati, kirol zuzendari, taldetako kide ala, orokorrean, edonolako pertsonari eginiko eraso, ekintza hark lesio arinak eragiten dituzenean ala eragin kaltegarriarik ez dakarrenean.
- b. Kalte ala lesiorik eragin gabeko jokalarien arteko erasoak, ala beste edonolako jarduera zeinek mehatxua ala indarkeria inplikatzear gainera aurreko ataletan jaso gabe egongo baliakete. Era berean, eraso bat nahiz aipaturiko edonolako jarduera aldaratuz modu analogoan jokatuko lukeen jokalaria.
- c. Arbitroen taldeko kide batengana keinu erasokorrek eginez zuzentzea.
- d. Arbitroen taldeko kideren bat kaltetzeko ala beldurtzeko asmoz mehatxatuko lukeen hura.
- e. Arbitroen taldeko kideren batengana jarrera nahiz hitz modu desegokiekin zuzentzen den jokalaria, baita arbitroen agintaritzari errespeturik eza inplikatzeko duen ala partiduaren garapenerako larritasun ala garrantzia berezia suposatzen duen beste edonolako jarduera.
- f. Arbitroen talde, ofizial, kirol zuzendari, talde aurkariko kide ala ikusleei dagokionez iraina, mehatxua ala kontsideraziorik eza inplikatzeko duen edonolako ekintza burutuko lukeen jokalaria.
- g. Arbitroen taldeko kideek emandako aginduak behin eta berriro ez betetzea, zeinek ondorio larriak eragingo bailituzkete.
- h. Zigor arinak haustea.

2. Arau-hauste larriak lehiaketa ofizialen hilabete (1) eta bederatzi (9) hilabete bitarteko, ala lau (4) eta bederatzi (9) jardunaldi ofizial arteko aldi baterako etenarekin zigortuko dira.

**17. Artikulua:**

1. Ondorengoak arau-hauste arinak bezala kontsideratuko dira:

- a. Bere funtzioak burutzerakoan arbitroen taldeko kide, ofizial, kirol zuzendariei eginiko oharrak zeinek hitz ala ekintzaren bidez begirunerik eza arina suposatzeaz gainera haien ohore eta duintasuna kaltetuko baititu.
- b. Aurkako taldeko kide, kide ala ikusleekiko begirunerik ez arina.
- c. Partiduaren garapenean zehar jarrera pasiboa ala axolagabea, zakarra ala arriskutsua erakustea, arbitroen erabakiekin ala kirol agintariekin, betiere partiduaren garapen eta amaiera egokirako emaitza kaltegarriarik eragiten ez badute.

- d. a) eta b) ataletan aipatutako pertsonak iraindu, mindu ala probokatuko lituzkeen hura, mesprezuko adierazpen ala keinuekin, hauen ohore eta duintasuna erasoz, betiere hutsegite larria suposatzen ez badu.
  - e. Partidu baten martxa egokia eragotziaz jendea probokatzea, larritasuna suposatu beharrik izan gabe.
  - f. Ohikoa ez den partiduaeren etetea eragitea.
  - g. Orokorrean, ardura falta ala axolagabekeriarengatik kirol arauak ez betetzea.
2. Arau-hauste arinak lehiaketako jardunaldi ofizial bat (1) ala hiruren (3) ohartarazpen ala aldi baterako etetearekin zigortuko dira.

## **II. Atala: Arbitroen taldeko kideek eginiko arau-hauste eta bere zigorrenak**

### **18. Artikulua:**

Atal honetan tipifikatutako arau-hauste eta zigorrei utzi gabe, arbitroen taldeko kideek eginiko edozein hutsegite, zein jokalariek egin ahal lituzketen haien artean tipifikatuta egongo bailitzateke eta haiei legokiokeen kontsiderazio eta zigor berdina izango bailuke.

### **19. Artikulua:**

1. Arbitroen taldeko kideen arau-hauste berezi oso larria bezala kontsideratuko da, partiduko beste edozein kiderengan kalte larria eragin ahal duen taldetako batekiko jakinaren gainean eginiko alderdikeria.
2. Era berean, oso larritzat joko da jakinaren gainean eginiko partiduko aktaren idazte, aldatze ala manipulatzeari, zeinetan bere oharrek joko-eremuan gertatutakoarekin ez baitira egokituko, ala asmo txarrekoa nahiz faltsua den informazioa.
3. Arau-hauste hau bi (2) urteko aldi baterako gaitasungabetzearekin zigortuko da, eta gehigarri bezala, partiduko arbitroek eskuratu beharko lituzketen arbitraje eskubide guztiak galtzea suposatuko du.

### **20. Artikulua:**

1. Talde arbitralaren arau-hauste berezi larriak bezala kontsideratuko dira ondorengoak:
  - a. Jardueraren izendapena errefusatzeari, ezinbesteko kasutan izan ezik, zein Eskubidearen arabera egiaztatu behar izateaz gainera berehala Arbitroen Batzorde Teknikoari jakinaraziko baitzaio.
  - b. Partidu batera justifikatu gabe eginiko ez agertzea.

- c. Partiduaren aurretik, honetan zehar ala ondoren gertatutako ekintzen berri emateko txostenik eza, burutu egin behar denean ala Lehiaketa Batzordearen aldetik horretarako eskatua izaten denean.
- d. Justifikatutako arrazoirik gabe partida etetea.
- e. Partidu eta Lehiaketen Arautegian, bereziki bere XI. Izenburuan, ezarritako edonolako betebeharrak ez betetzea.
- f. Partiduaren emaitza nahiz gertaeren ageriko aldaketa.
- g. Aldatze-gunean partiduko aktan baimendu gabe dauden pertsonak aurkitzea.
- h. Arautegiko arauak aplikatzerakoan bere betebeharren ez betetze larria.
- i. Arbitroen Batzorde Teknikoak burutzen dituen ikastaro ala deialdietara justifikatu gabe eginiko ez agertzea.
- j. Hutsegite arinak direla eta eskumeneko organoak arbitroei ezarritako zigorrak ekonomikoen ez ordaintze errepikatua.

2. Arau-hauste hau lehiaketa ofizialeko hilabete (1) eta sei (6) hilabete arteko aldi baterako etetearekin eta/edo arbitraje eskubideak erabat galtzearekin zigortuko da.

### 21. Artikulua:

1. Talde arbitraleko kideen arau-hauste berezi arinak kontsideratuko dira ondorengoak:

- a. Joko-eremura ordubete (1) lehenago ez bertaratzea, ezinbestean izan ezik.
- b. Partiduaren aktan datu guztiak ala hainbat datu ez jartzea; bere idazketa desegokia ala zentzugabea; akta hori nahiz txostenak Partidu eta Lehiaketen Arautegian aurreikusitako modu eta epeetan ez bidaltzea.
- c. Emaitzak Partidu eta Lehiaketen Arautegian ezarritako modu eta epean ez ematea.
- d. Kirol arau orokorrak aplikatzerakoan bere betebeharrak neurriren batean ez betetzea, ala horretarako baimendu gabeko ofizialen inskripzioak eta funtzioen jardura zilegi egitea.
- e. Talde partaidetako kideen kirol izaeraren aurkako jarreraren aurrean azaldutako pasibotasuna.

2. Arau-hauste hau lehiaketako jardunaldi bat (1) ala hiruren (3) ohartarazpen ala aldi baterako etetearekin eta/edo arbitraje eskubideen % 50erainoko galera partzialarekin zigortuko da.

### 22. Artikulua:

Partiduak zuzentzeko esleitu diren arbitroak zein justifikatutako arrazoirik gabe hauek zuzentzera ez baitira agertuko, Arautegi honek ezartzen dizkieten zigorrak gainera, Lehiaketa Batzordearen arabera, partida ospatu ezin izanagatik ala hau atzeratu izanagatik talde lehiakideek jasan ahal dituzten kalte eta galeren arduradunak izango dira.

**23. Artikulua:**

Lehiaketa Batzordeak, arautegi espedientea irekitakoan, eta honi dagokion ebazpena erabaki aurretik, bere kasuan, Arbitroen Batzorde Teknikoari eztabaidatutako jardueri dagokion txostena eskatuko dio, zein gehieneko hamar (10) eguneko epean bidali beharko baita.

**III. Atala: Entrenatzaileek, entrenatzailearen laguntzaileek, laguntzaile eta medikuek eginiko arau-hauste eta bere zigorrera**

**24. Artikulua:**

Entrenatzaile, entrenatzailearen laguntzaile, laguntzaile eta medikuek eginiko edonolako hutsegite, zein jokalariek egin ahal lituzketen haien barne tipifikatuta bailegoke, haiei legokiekeen kontsiderazio eta zigor berdina jasoko dute.

**25. Atala:**

1. Partidu zehatz batean taldeko arduradun bezala jarduten duen eta Partiduko Akta sinatu nahi ez duen edozein entrenatzaile, laguntzaile ala talde laguntzaile lehiaketako jardunaldi ofizialen bat (1) eta hiru (3) jardunaldi ofizialen etetearekin zigortuko da.

2. Entrenatzaile, entrenatzailearen laguntzaile, laguntzaile eta medikuarentzat debekatuta geratzen da talde arbitraleko kideei dagokionez protestatzea; joko-eremuan sartzea, gertatu ahal diren gertaeretan parte hartzea, lesioaren kasuan bere jokalaria laguntzeko izan ezik, aurretiazko arbitroaren baimenarekin, ala erasoaren kasuan hau defendatzeko. Entrenatzaile, entrenatzailearen laguntzaile, laguntzaile ala medikuren batek artikulu honetan adierazitako arrazoiengatik deskalifikatua izan delako joko-eremua utzi behar duenean, partidu berdinean aurretiaz ohartarazia izan bada, arau-hauste arina egotziko zaio eta bat (1) ala hiru (3) jarduera ofizialen aldi baterako etenaldiarekin zigortuko da.

**26. Artikulua:**

1. Bere taldeko partiduetara Entrenatzailea bertaraten ez denean, ezinbestean izan ezik, arau-hauste arina egotziko zaio eta Entrenatzaileari ez agertze bakoitzarengatik 20 Euroko isunarekin zigortuko zaio justifikatu ezin ahal diren arrazoiak berari ala aurkako kasuan dagokion klubari egotzi ahal zaizkionean, Arautegi honetako 34. artikulua araberera. Arau-hauste mota hauetan Lehiaketa Batzordeak klubaren ala Entrenatzailearen erantzukizuna zehaztuko baitu.

2. Ez agertzeak Entrenatzaileei egotzi ahal bazaizkie, arau-hauste hori nahiz entrenatzaileak bere taldeko partiduei dagokionez eginiko ez agertze fisikoa zortzi (8) partidu ofizialen zehar errepikatuko balitz, arau-

hauste larria suposatuko luke eta zigorra ezarriko litzateke; aurreko paragrafoan adierazitakoaz gainera, eragileak lehiaketa ofizialeko hilabete (1) eta bederatzi (9) hilabete bitarteko aldi baterako etenaldiarekin zigortuko dira.

### **27. Artikulua:**

1. Gainerako lehiaketa ofizialean zehar bere betebeharra burutzea eragozten duen entrenatzaile, entrenatzailearen laguntzaile ala laguntzaileari ezarritako aldi baterako zigorraren kasuan, betiere hau amaitu baino hilabete (1) lehenago gertatzen bada, inplikaturako taldea federazio-lizentzia beste batengatik ordeztuko baimenduko du, arautegiko baldintzak betetzea beharrezkoa izateaz gainera zigortua entrenatzailea den kasurako beharrezkoa izanik.

2. Bere ez betetzea, entrenatzailearen kasurako, aurreko artikulua lehenengo paragrafoak adierazten duen bezala hutsegite arina kontsideratuko da eta zigortua izango da; bere gaitasungabetze zigorrak salbuesle ala aringarri bezala ez du balio izango.

### **28. Artikulua:**

Medikuarentzako Partidu eta Lehiaketetako Arautegian kontenplutzen diren funtzio bereziak ez betetzea, ezinbestekoa den kasuetan, hutsegite arina bezala kontsideratuko da eta lehiaketako bat (1) ala hiru (3) jardunaldi ofizialen aldi baterako etenaldiarekin zigortuko da. Modu berean, arautegiaren arabera bere betebeharra izanik agertzen ez denean, ez agertze bakoitzarengatik 20 Eurorainoko isunarekin zigortuko da, justifikatu ahal ezin diren arrazoiak honi egotzi ahal zaizkionean, ala aurkako kasuan dagokion kluba zigortuko da, Arautegi honetako 34. Artikuluaren arabera.

## **IV. Atala: Taldeko ofizialek eta klubeko zuzendariak eginiko arau-hauste eta bere zigorraren**

### **29. Artikulua:**

1. Jokalari, entrenatzaile, entrenatzailearen laguntzaile ala taldeko laguntzaileek egin ahal lituzketen hutsegite haien barne tipifikatuta legokeen klub ala Federazio bateko Taldeko Ofizialek ala Zuzendariak eginiko edonolako hutsegiteri dagokionez, haiei legokiokoen kontsiderazio eta zigor berdina jasoko dute.

2. Halaber, zigor osagarri bezala, hutsegite oso larrietarako 600 Euroko isuna ezarri ahal izango da, hutsegite larrietarako 300 Eurokoa, eta arinetarako 150 Eurorainokoa.

**30. Artikulua:**

Funtzioen ez betetzea, zein derrigorrezko bezala, joko-eremuko Ordezkarri funtzioak betetzen dituzten "taldeko Ofizialentzako" Partidu eta Lehiaketa Arautegian araututa baitaude, hutsegite arina bezala kontsideratuko da, horrela, eskumeneko organo eta bildutako zirkunstantzien kontsiderazioaren arabera bat (1) eta hiru (3) jardunaldi ofizialeko aldi baterako etenaldiarekin eta 20 Euroko isunarekin zigortuko da.

**V. Atala: Klubek eginiko arau-hauste eta bere zigorraren**

**31. Artikulua:**

1. Arau-hauste oso larriak bezala kontsideratuko dira eta parte hartzen duen klubaren kanporaketarekin zigortuko dira, lehiaketa ofizialetan parte hartzeko bi (2) eta lau (4) urte bitarteko aldi baterako gaitasungabetzearekin eta, bere kasuan, 1.001 eta 1.500 Euroko isunarekin:

- a. Oso larri bezala tipifikatutako edonolako arau-hauste, zeinen barne jokalaria, entrenatzaileak, zuzendariak eta taldeko ofizialak barne egoteaz gainera klubei aplikatu ahal izango baitzaizkie.
- b. Arbitroei ala bere laguntzaileei opariak agintzea ala ematea, arbitraje partzial bat izateko helburu garbi eta ezkutuarekin.
- c. Partidu bateko balizko emaitzei buruzko apustu gurutzatutak.
- d. Bihurrikeria jardura haiek zein Euskal Eskubaloi Federazioak ala Arautegi honetan tipifikatutako edonolako arau-hauste motarekin lotutako bere diziplinazko organoek hartutako hitzarmen haien aurka zuzentzen baitira.
- e. Berrito egitea, arautegiak eskatutako baldintzak ez betetzeagatik lehiaketa ofizial baten zehar hirugarren aldiz jokalaria baten zenbaki desegokia emanez.

2. Lehiaketa Batzordearen ustetan bertaratuen aldetik garrantzi berezia duten gertaerak jasotzen direnean, kirol instalaziotan, bere arbitro, laguntzaile, aurkako taldeko kide, zuzendari ala federatuengan kalte larriak eragin ahal dituzten jarduerak izateagatik, zeinek partiduaren amaiera eragotzi izan baitute, klubak zeini baitagokie 1.001 eta 1.500 Euroren arteko isunarekin zigortuko dira. Klub antolatzaileari balegokio halaber lau (4) jardunaldi ofizial eta lehiaketako bi (2) hilabete bitarteko epean zehar bere joko-eremuaren ixtearekin zigortuko da.

Berrito egitearen kasuan, joko-eremuaren ixtea denboraldiaren geratzen den eperako ala lehiaketa ofizialeko hiru (3) eta sei (6) hilabete bitartekoa izan ahal izango da.

3. Arbitroek, aurkako taldeko edozein kide, zuzendari ala federatutak banaka ala taldean eginiko erasoak jasango balute, jadanik joko-eremuan, bere irteeran ala bere inguruetan nahiz beste toki batean

leudekeenean, betiere, partidu baten ondorio bezala hartu ahal bada, 1.001 eta 1.500 Euroren arteko isunarekin zigortuko da, eta partiduaren talde antolatzailearen jarraitzaileen kasuan joko-eremua lau (4) jardunaldi ofizial eta lehiaketaren bi (2) hilabeteren bitarteko epean zehar itxi ahal izango da.

4. Lehiaketa berdin batean ala azken hiru partiduetako batean bigarren aldiz gertatzen den justifikatu gabe eginiko ez agertzea, 1.001 eta 1.500 Euro arteko isuna eta lehiaketa taldearen deskalifikazioarekin zigortuko da, eta arau-haustearen ondorengo denboraldia pasatzen den arte kategorian ezin izango da berriro sartu, betiere kirol izaerarekin sailkatzen bada.

Kontsiderazio berdina izango du arbitroen erreziboak ez ordaintzeari dagokion berriro egiteak.

5. Lehiaketa batetik eginiko behin betiko erretiratzeak, hasita dagoenean, partidu ofizial batera eginiko justifikatu gabeko bigarren ez agertzeak bezalako arau-haustea suposatuko du eta aurreko atalean ezarritakoaren arabera zigortuko da.

6. Puntuaren arabera lehiaketa batetik eginiko behin betiko erretiratzea, bere egutegia eratuta dagoenean ala uko egiteko epea pasa denean, 1.001 eta 1.500 Euro arteko isunarekin zigortuko da eta taldea aurreko denboraldian parte hartu duen kategoriarekiko beheragoko batera jaitsiko da, horrela, arau-haustearen arabera hurrengo denboraldia pasa arte ezin izango da berriro sartu, betiere sailkapenaren arabera eskubideak eskuratu dituenean.

Kanporaketen arabera lehiaketa batean parte hartzeari uko egitea ala honetatik behin betiko erretiratzea, arautegiko epeetatik kanpo, 1.001 eta 1.500 Euro bitarteko isunarekin eta lehiaketa horretan parte hartzeko eskubidearen galerarekin zigortuko da, bere partaidetzarako sailkapena lortzen badu ere, hurrengo denboraldia iragan arte, betiere lehiaketaren oinarrien arabera kirol eskubideak berriro eskuratu izango balira.

7. Autonomia lehiaketetan senior kategoriako taldeak dituen klub bat, zeinetan gazteen nahiz kadeteen talderik ez baita egongo, hau da, bietako bakar bat ere ez, parte hartzen duen senior lehiaketatik deskalifikatua izango da, beheragoko kategoriara jaitsiaz, eta hartara ezin itzuli ahal izango da arau-haustea ezartzen zaionetik ondorengo denboraldira arte, betiere horretarako sailkapena lortzen badu eta gazteen taldea nahiz kadeteen taldea izateko betebeharrarekin betetzen badu.

8. Ondorengo artikuluan aurreikusitako arau-haustek berriro egiteari dagokionez, bertan zehaztutako zigorrez gainera, bere joko-eremuaren ixteari dagokiona ezarriko da lehiaketako lau (4) jardunaldi ofizial eta bi (2) lehiaketa hilabeterekin.

### 32. Artikulua:

1. Arau-hauste larriak bezala kontsideratuko dira eta 500 eta 1.000 Euro arteko isunarekin zigortuko dira, horrela, Lehiaketa Batzordeak joko-eremua ixtea erabaki ahal izango du ala hau hiru (3) partidu ofizialetan zehar itxi ahal izango du, kasuaren arabera, ondorengoak kontuan izanik:

- a. Talde bisitariari dagokionez harrera betebeharrekin bat ez datorren jendearen jarrera desegokia ala hutsegite arina kontsideratuko ez litzatekeen talde aurkariaren arbitro, laguntzaile, kide, Euskal Eskubaloi Federazioaren kide ala kirol agintariei zuzendutako errespetuarekin lotutakoa nahiz hura berriro egitea
- b. Jokalari, arbitro ala laguntzaileen aurka objektuak jaurtitzen direnean, ala ikusleen aldetik beste edonolako indarkeria motaren biktimak izaten direnean, joko-eremuan inbasiorik ez gertatzeaz gainera jokatzeko duten kalterik jasaten ez dutenean.
- c. Jendeak joko-eremua inbadituko balu, horrela jokoaren martxa normala eragotziaz, jokalariei nahiz arbitroei kalterik eragin gabe, partidua etenaz baina bere amaiera eragotzi gabe.
- d. Artikulu honetako aurreko ataletan aipatutako gertaerek, partiduaren amaiera eragotziko balute ala berriro egitea gertatuko balitz, Klub antolatzaileak zigortuak izango dira, halaber, bat (1) eta hiru (3) jardunaldi ofizial bitarteko joko-eremuaren ixtearekin.

2. Halaber arau-hauste larrien kontsiderazioa izango dute, eta 500 eta 1.000 Euroren arteko isunarekin, markagailuan islatuko litzatekeen emaitzaren arabera partidua galtzearekin ala talde arau-hauslea irabazten joango balitz 0 – 10 emaitzarekin edo bestela sailkapen nagusiari dagozkion bi punturen galerarekin zigortuko da, zein partidu horri dagokion lehiaketaren fasean soilik aplikatuko baita, betiere lehiaketa hori hainbat fasetan jokatzeko bada, hurrengo kasuetan:

- a. Hutsegite arin bezala kontenplatutako edozein kasu berriro egitea, zeinek partiduaren hasiera nahiz amaiera normala eragotziko baitu.
- b. Partidu batera justifikatu gabe ez agertzea. Kasu honetan, halaber, 0 – 10 emaitzarekin talde arau-hauslearen partidua galdutzat emango da. Kanporaketan arabera lehiaketa bat izango balitz, agertu gabeko taldearen fasea galdutzat emango litzateke.
- c. Talde bat joko-eremutik erretiratzea, partidua hasita dagoenean, zeinen jarrerarekin partiduaren amaiera normala eragozten baita. Zigor berdina aplikatu ahal izango da talde bateko jokalaria ala bere zuzendari, entrenatzaile ala ordezkarien jarrerarengatik partiduaren hasiera eragozten denean, horretarako partiduko arbitroek eskatu izanagatik bere ezezkoan irauten badute.

- d. Jokalari batek taldean modu desegokian parte hartzea, eskatutako arautegiko baldintzak ez betetzeagatik, arau-haustearen arrazoia klubaren asmo txarra ala axolagabekeria nahiz ardua ezagatik lehiaketa berdinean bigarren aldiz berriro egitea izanik. Kanporaketan arabera lehiaketaren kasuan, partaidetza desegoki hori burutu duen talderako fase hori galdutzat kontsideratuko da. Zirkunstantzia berdinetan arautegiko baldintzak betetzen ez dituen entrenatzaile, laguntzaile, taldeko laguntzaile ala ofizial batek partaidetza desegokia eragiten badu, ezarri beharreko zigorra ekonomikoa soilik izango da.
- e. Euskal Eskubaloi Federazioa bidalitako lizentzia ala dokumentuetan islatutako egiazkotasunik eza ala engainuzko aldaketa, betiere klubaren aldetik erantzukizuna egiaztatuko balitz.

3. Aldi berean, arau-hauste larria bezala kontsideratuko da eta 500 eta 1.000 Euro bitarteko isunarekin eta arau-haustea ezartzen den unearikiko ondorengo denboraldian parte hartzearen debekuarekin zigortuko da, denbora eta moduari dagokionez honi uko egin ez dioten lurralde taldeak igoera fasetara ez agertzea.

4. Federazioak ezarritako kuota, zor, zigor ala fidantzak ez ordaintzea arau-hauste larria kontsideratuko da eta eskubidearen arabera egokituko litzaiokeen kategorian parte hartzeko ezintasunarekin zigortua izango da.

Era berean, lehiaketa ofizialetan parte hartzeagatik ala federazio-arautegia nahiz zigor ekonomikoak aplikatzerakoan ala Lehiaketa Batzordeak eginiko eskaerak direla eta ordaindu beharreko edonolako betebeharrak ekonomiko ez ordaintzeak, talde zorduna lehiaketatik deskalifikatua izan ahal izango dela suposatuko du.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa kontenplatu ahal izateko, Euskal Eskubaloi Federazioak idatzizko eskaera bat bidali beharko du, zeinetan hartutako zorra eta hau kitatzeko hamar (10) laneguneko epe luzaezina zehaztuko baita; epe hori pasatakoan, artikulua honetan xedatutakoa aplikatu ahal izango da.

Arbitroen fondoak ala arbitrajearekin lotutako ordainsariak ordaintzen ez diren kasuan, ala helburu horretarako ordainketa bezala entregatutako taloia itzultzerakoan, ondorengo moduan jardun beharko da:

- a. Errezibo arbitralaren zenbateko osoa joko-eremuan ordaindu ez duen klubak bere zenbatekoa partiduaren ospakizun dataren hurrengo hiru (3) egun baino lehenago Federazioan entregatu beharko du, bere osotasunari dagokion % 20aren errekaru gehigarriarekin.
- b. Lehenago adierazitako epean zor horren ordainketa burutuko ez balitz, hura bere zenbateko globalari dagokion % 20aren areagotzearekin eskatuko zaio, hau ordaintzeko hiru (3) laneguneko azkeneko epea emanaz.

- c. Aurreko betebeharra betetzen ez bada, kluba lokal bezala jardun behar lukeen lehenengo partiduen etetearekin zigortuko da, partida 0 – 10 emaitzarekin galdutzat emanez; ekintza hau etengabe errepikatuko da, talde lokal bezala jarduten duen bitartean, ordaindu gabeko arbitrajearen ordainketari ekin arte, dagokion errekarogarekin eta bere kasuan, ezarritako isunekin.

Klub zordunak hartutako zorra eta ezarritako errekaruak dagokion partida ospatzeko aurreikusitako data baino gutxienez lau egun lehenago ordaintzen baditu dagokion etetea ekidin egin ahal izango du.

- d. Ordaindu gabeko eta aurretiaz eskatutako errezibo arbitralak dituzten bi partidu egongo balira, taldea lehiaketatik deskalifikatua gertatu ahal izango da.

### 33. Artikulua:

1. Arau-hauste arinak bezala kontsideratuko dira eta 300 Eurorainoko isunarekin zigortuko dira eta, halaber, paragrafo bakoitzean ondoren zehazten den bezala, ondorengoak:

- a. Larrien ala oso larrien kontsiderazioa ez duten jendearekin lotutako gertaerak jazotzen direnean zeinek partiduen amaiera normala ez baitute eragotziko; halaber, joko-eremuaren itxtearen ohartarazpenarekin zigortu ahal izango da eta hori aldi baterako kaltetuen aldeko diru-laguntzak alde batera utzita.
- b. Joko-eremura objektuak jaurtitzen direnean, hauek erretiratzeko partiduen une bateko etenaldia eraginez ala ez, ala bere partaideak edonolako eragin arinen biktimak izango lirakekeen kasuan, betiere joko-eremuan inbasiorik gertatuko ez balitz.
- c. Talde bat puntual aurkeztuko ez balitz, partiduen hasierarako adierazitako orduan, hau justifikatuko lukeen arrazoirik azaldu gabe, ohartarazpenarekin zigortua izango da.
- d. Talde bat partida jokatzeko hasiera ematerakoan indarrean dagoen Joko Arautegian zehazten dena baino jokalarien kopuru txikiagoarekin agertzen bada, 10 – 0 ala 0 – 10 emaitzarekin partiduen galtzearekin zigortua izango da, bisitaria ala lokala izatearen baldintzaren arabera.
- e. Joko-arauen eta hauetan beharrezkoak diren elementu teknikoaren erabilgarritasunarekin lotutako arauak asmo txarrez ala axolagabekeriarekin ez betetzea, Joko Arau Ofizial eta Partidu nahiz Lehiaketetako Arautegiaren arabera, zeinek partiduen etetea eragingo baitute. Baita partiduan

edonolako gertaeraren eragileak diren ikusle haiek ez kanporatzea eta Indar Publikoen esanetara jartzea ere.

- f. Partiduan zehar eta ondoren ordenaren nahasmenduak ekiditeko beharrezko neurri guztiak ez hartzea eta, bereziki, Indar Publikoaren laguntza ez behar izatea.
- g. Eskatutako arautegiko baldintzak ez betetzeagatik eginiko lehenengo jokalarien zerrenda desegokia, edozein kasutan arau-haustearen arrazoia axolagabekeria ala ardura falta soila izanik, kluba, halaber, ohartarazpenarekin zigortua izango da. Era berean kluba zigortua izango da arrazoi berdinarengatik partaidetza desegokia entrenatzaile, laguntzaile, mediku ala taldeko ofizial baten aldetik izaten denean.
- h. Instalazio, publiko, aurkari ala arbitroei zor zaien harrera eta errespetuaren aurka doazen jarduerekin adierazitako jokalarien jarrera desegokiak eta kirolaren aurkakoak halaber klubari eginiko ohartarazpenarekin zigortuko dira.

2. Era berean, arau-hauste arina bezala kontsideratuko da eta atzerapeneko egun bakoitzeko 30 euroko isunarekin zigortuko da, partiduen data eta ordua ez jakinaraztea zeinen data muga asteleheneko 14:00ak izango baita.

#### **34. Artikulua:**

1. Azaldutako egoera guztiez gainera, arinak bezala kontsideratzeaz gainera 90,00 Euroainoko isunarekin zigortutako Partidu eta Lehiaketetako Arautegiaren araukiko arau-haustek izango dira, ondorengo zirkunstantzia eta berriro egiteen arabera:

- a. Talde partaideen aldetik eginiko baterako berdintasun ala ekipamenduen numeraziorik eza, arautegian ezartzen denaren arabera.
- b. Talde partaideen aldetik eginiko aurretiazko baimen ala justifikatzen duen arrazoirik gabeko uniformetasunaren nahasmendua.
- c. Entrenatzailearen lizentzia ala Partidu eta Lehiaketetako Arautegian ezarritako epe eta modutan Taldeko Ordezkarri eta Joko-eremuko Ordezkarriaren funtzioak estaltzeko behar adina Taldeko Ordezkarri ez bideratzea.
- d. Entrenatzaileek, entrenatzaile-laguntzaileek eta ofizialek identifikazio-txartel zintzilikairuak ez aurkeztea.
- e. Euskal Eskubaloi Federazioak antolatutako lehiaketetarako arauko baloi ofizialik ez aurkeztea.

2. Entrenatzaile titularra edo entrenatzaile-laguntzailea, joko-eremuko ordezkarria eta taldeko ordezkarri bat partiduen aktan ez inskribatzea eta ez agertzea, Euskadiko Gizonezkoen eta Emakumezkoen Senior

Txapelketan ez agertutako pertsona eta partidu bakoitzeko 20€ko isunarekin zigortuko da eta 10€kin gainerako mailetan.

Entrenatzaile titularra ez badago, fitxa izapidetuta duen eta beharrezko titulazioa duen klubeko edozein entrenatzailek ordezkatu ahal izango du.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa halaber modu berdinean aplikatu ahal izango da partidu eta lehiaketetako arautegiak aktan inskribatzea eta mediku baten presentzia fisikoa eskatzen dituen kasuetan.

3. Partiduaren aktan ez inskribatzea hala nola partidu eta lehiaketetako arautegiak eskatzen duen talde bateko hamabi (12) jokalaria ez bertaratzea, gizonezko eta emakumezkoen senior kategorietan 10 Euroko isunarekin zigortuko da eta 5 Eurorekin jokalaria bakoitzeko gizonezko eta emakumezkoen gazteen eta kadeteen kategorietan.

Aurrekoa hala izanik, hamabi (12) jokalaria baino gutxiagorekin baina beti gutxienez hamar (10) jokalarirekin burutzen diren taldeak eginiko lehenengo lau lekualdatzeak, azkeneko lau jardunalditan izan ezik. Hau beteko ez balitz, aurreko paragrafoan ezarritakoa jarraitu behar genuke.

### **35. Artikulua:**

1. Partiduaren etetea suposatzen duen atal honen aurreko artikuluetan azaldutako jendearen jarrera dela eta ezarritako edonolako arau-hausteren aurrean, Lehiaketa Batzordeak bere jarraipena adostu ahal izango du ala etetearen unean markagailuak islatzen duen emaitzarekin amaitutzat eman ahal izango du, partidua amaitzeko geratzen den denbora eta klub partaide baten ala bestearen erantzukizunaren arabera zeinekin ikusle arau-hausleek lotura izango baitute.

2. Era berean, aurreko paragrafoan azaltzen ez diren eta atal honetako aurreko artikuluetan ezarritako klubaren ardurapean gertatutako edonolako arau-hauste, zeinek partiduaren etetea suposatuko baitute, zigortuak izan ahal izango dira, halaber, talde arau-hausleari dagokionez partiduaren 10-0 galtze emaitzarekin.

3. Adierazitako edozein kasutan, klubak zeinen taldeak partiduaren etetea ala ez ospatzea eragingo baitzukeen, bere aurkariei eragin ahal izango lukeen kalte ekonomikoaren arabera ebaluatutako kalte-ordaina ordainduko diete eta zenbatekoa eskumeneko diziplinazko organoak finkatuko du.

### **36. Artikulua:**

Ikusleek eginiko hutsegiteak talde bisitariaren jarraitzaileek burutu izanak bezala egiaztatuko balira, atal honetan jasotako zigorrak azken hauei aplikatuko litzaizkieke.

**37. Artikulua:**

Atal honetako artikuluetan lehenago adierazitako zigorrez gainera, Klubek, federazio-kargua duten pertsonak, jokalaria eta elementuak, talde aurkariaren zuzendariak, hala nola arbitroak eta laguntzaileak nahiz garraiorako erabiltzen dituzten ibilgailuak kaltetu izanagatik dagozkien kalte-ordainak asebate beharko dituzte, betiere partiduaren ondorioz gertatzen badira.

**III. Kapitulua: Kirol Arau Orokorren arau-hauste eta bere zigorrena**

**38. Artikulua:**

Kirol arau orokorre dagokionez arau-haustek kontsideratuko dira aurreko kapituluaren barne ez dauden jarduerak ala ez egiteak, zein Euskal Herriko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean, diziplinazko ahala arautzen duten arautegiko xedapen publikotan, Euskal Eskubaloi Federazioaren Estatutuetan eta Arautegi honetan ezarritakoarekiko aurkakoak izango baitira.

**39. Artikulua:**

Arau-hauste oso larriak kontsideratuko dira, edozein kasutan, eta bi (2) eta lau (4) urteren bitarteko gaitasungabetzea eta/edo 1.501 € eta 3.000 €-ren arteko zenbatekoaren isuna ezarriko da, ondorengo kasuetan:

- a. Laguntzak eta diru-laguntzak dagozkion oinarri ala emate hitzarmenetan ezarritakoarekiko helburu ezberdinetarako erabiltzea.
- b. Laguntzak eta diru-laguntzak onartzeko eskatutako datu erreal ala dokumentuen ageriko nahasmendua.
- c. Esleipen ala eskumenen legez kanpoko usurpazioa.
- d. Diziplina ala hauteskunde organotako kideen aldetik estatutuko nahiz arautegiko betebeharren ez betetze oso larria.
- e. Kirol instalaziotako segurtasun eta higienearekin lotutako federazio arauak ez betetzea, hauetara bertarutzen diren pertsonentzako arrisku oso larria suposatzen dutenean.
- f. Segurtasun arauak eta arriskuen estaldura betetzen ez duten kirol jarduerak antolatzea hauek hirugarrenentzako arrisku oso larriak eragiten dituztenean.
- g. Estatutuko eta arautegiko arauen agerikoa eta errepikatua den ez betetzea, baita Euskal Eskubaloi Federazioaren hitzarmenena ere.
- h. Epaille, kirolari, teknikari, kirol agintari eta kirol ospakizunetako beste partehartzaile batzuegan eginiko eraso, beldurtze ala indarkeria.
- i. Agintearekin lotutako gehiegikeriak.

- j. Protesta ala jarduera kolektiboa zeinek partidu, proba ala lehiaketa baten ospakizuna eragotziko bailuke, zeinek bere aldi baterako nahiz behin betiko etetea behartu ahal bailuke.
- k. Indarkeria eragin ahal duten kirolari, teknikari, epaile eta zuzendarien adierazpen publiko eta gainerako jarduera.
- l. Kirol jardueraren garapenerako esleitutako fondo publikoen jakinaren gainean eginiko erabilera desegokia.
- m. Debekatutako substantzien sustapen, okerbideratze eta kontsumoa ala debekatutako metodoen erabilera eta bere kontrol egokia eragozten duen edonolako jarduera ala ez egitea, hori guztia kirolarien gaitasun fisikoak modu artifizialean areagotzera destinatuta dagoela kontuan izanik.
- n. Jokoaren ala lehiaketaren emaitza aurre-zehaztera bideratutako jarduerak ala ez egiteak.
- o. Arau-hauste larri ala oso larriarengatik ezarritako zigorrak haustea.
- p. Arau-hauste larriak berriro egitea.
- q. Kirol Justiziako Euskal Batzordearen Ebazpenak ez betetzea.
- r. Federazio-lizentziak ez ematea ala atzeratzea, justifikatutako arrazoirik gabe, betiere asmo txarrez egiten bada.
- s. Kirol modalitatearen garapen eta praktikarako modu larrian erasotzailea gertatzen den beste edonolako jarrera.
- t. Partiduetan indarkeria eragitea inplikatzeko duten pankartak, sinboloak, enblemak ala legendak ezartzea eta erakustea, baita armak eta jaurtizko tresnak ere. Kasu horietan, klub antolatzaileak objektu horiek eramaten saiatzen diren pertsona haientzat guztientzat sarrera debekatu beharko du eta, bere kasuan, hauek berehala erretiratzeari ekin.

#### 40. Artikulua:

Arau-hauste larriak kontsideratuko dira, edozein kasutan eta lehiaketa ofizialaren hilabete (1) eta urtebete (1) bitarteko aldi baterako etenarekin eta/edo 601 Euro eta 1.500 Euro bitarteko isunarekin zigortuko dira, ondorengoak:

- a. Hutsegite arinarengatik ezarritako zigorrak haustea.
- b. Bere zereginen ez betetze oso larria suposatuko ez duten diziplinazko ala hauteskunde organotako kideen jarduerarik eza ala funtzioen utziera.
- c. Euskal Eskubaloi Federazioaren selekzioen deialdietara justifikatu gabe eginiko ez agertzea.
- d. Federazio lizentziak, justifikatutako arrazoirik gabe, ez ematea ala atzeratzea.
- e. Bere etetea eragin gabe, joko, proba ala lehiaketaren garapen normala nahastea eragiten duen protesta.
- f. Epaile, teknikari, entrenatzaile, kirol agintari, jokalaria ala bertaratutako jendeari eginiko irain eta laidoak.
- g. Dagokion titulazio ala baimenik gabe epaile ala teknikariek berezkoak dituzten jarduerak burutzea.

- h. Arau-hauste arinak berriro egitea.
- i. Dagokion baimenik gabe ofizialen izendapena duten kirol jarduerak, probak ala lehiaketak antolatzea.
- j. Betetako funtzio ala jarduerarekiko bateraezinak bezala adierazitako jarduera publiko ala pribatuak burutzea.
- k. Kirol lehiaketaren garapenak eskatzen duen duintasun ala ohorearen aurka modu erasotzaile agerian eginiko jarduera nabarmen ala publikoa.
- l. Kirol instalaziotako segurtasun eta higie-nearekin lotutako federazio arauak ez betetzea, hauetara bertaratzen diren pertsonentzako arrisku larria suposatzen dutenean.
- m. Besterik gabe estatutuko ala arautegiko nahiz Euskal Eskubaloi Federazioko hitzarmenetako arauak ez betetzea.
- n. Segurtasun arauak eta arriskuen estaldura betetzen ez duten kirol jarduerak antolatzea, jarduera burutzeak hirugarrenentzat arriskurik ekartzen ez duenean.
- o. Autonomia Erkidegoan ezarritako erakundeen artean, hamasei urte baino gutxiagoko kirolarien aldetik atxikitze, luzapen, heziketa, konpentsazio eskubideak ala antzekoak eskatzeko debekuaren ez betetzean parte hartzea.

### 41. Artikulua:

Arau-hauste arinak kontsideratuko dira, edozein kasutan, eta bat (1) eta hiru (3) lehiaketa ofizialen arteko aldi baterako etenaldiarekin eta/edo gehieneko 600 Euroko isunarekin zigortuko dira, ondorengoak:

- a. Epaile, teknikari, kirol agintari, jokalaria ala bertaratutako jendeari zuzendutako desegokitasuna suposatzen duten oharrak formulatzea.
- b. Bere funtzioak betetzerakoan epaile eta gainerako kirol agintarien aldetik jasotako agindu eta instrukzioekiko jarrera pasiboa.
- c. Ez betetze arina suposatzen duten diziplinazko ala hauteskunde organotako kideen jarduerarik eza ala funtzioen utziera.
- d. Federazio-organizazioan integratutako pertsona ala erakundeengana zuzendutako begirunerik gabeko nahiz iragarriak diren adierazpen publikoak.
- e. Oso larri ala larri bezala kontsideratzen ez diren kirol arauetikiko modu nabarmenean aurkakoak diren jarrera haiek.

### III. TITULUA: DIZIPLINAZKO PROZEDURENA

#### I. Kapituluak: Irizpide Nagusiak

##### 42. Artikulua:

Diziplinazko erantzukizunen garbiketa hala nola dagozkien zigorren ezarpena Izenburu honetan araututako prozedurei jarraiki bideratutako espedientearen arabera soilik burutu ahal izango dira, eta interesdunen derrigorrezko audientzia izapidea nahitaez kontenplatu beharko da.

##### 43. Artikulua:

Euskal Eskubaloien Federazioak zigorren erregistroarekin kontatzeko ardura du, besteren artean, ezarritako zigorraren existentzia, erantzukizuna aldatzen duten balizko arrazoiaren existentzia, arau-hauste eta zigorren preskripzio epeen zenbaketa ala birgaitzeko eskubidearen jardura hautemateko.

##### 44. Artikulua:

1. Partiduko arbitroek izenpetutako aktek, joko-arau eta kirol arauari dagokionez arau-haustek frogatu ahal izateko beharrezko baliabide dokumentaletako bat eratuko dute. Izaera bera izango dute arbitroek beraiek izenpetutako hauekiko hedapen ala argibideek, ofizioz ala diziplinazko organoek eskatu izanagatik.
2. Era berean, federazio ordezkariaren txostena, bere kasuan, interesdunen alegazioak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, eta balio frogagarria eskaintzen duen beste edonolako lekukotasun beharrezko baliabide dokumental bezala artatu beharko da.
3. Hala ere, prozedurarako eta bere ebazpenerako garrantzitsuak diren ekintzak edonolako baliabide frogagarriren bidez egiaztatu ahal izango dira eta ofiziozko Lehiaketa Batzordeak nahiz interesdunek, espedientea behar bezala ebazteko edonolako proba praktikatzeari proposatzeaz gainera interesgarriak gertatzen diren behar adina zuzenean ekarri ahal izanik.
4. Diziplinazko organoek eztabaidatu beharreko auziari buruz aholkua eman ala hau jakinarazteko informazioa edonolako federazio Batzorde ala Teknikariengandik eskuratu ahal izango dute.

Fase frogagarriak, Lehiaketa Batzordeak hala erabakiko balu, ekintzen argitzea ahalik eta denbora-eperik laburrenean burutuko du, baina hamabost (15) lanegun gainditzen ez duen gehieneko iraupena izan beharko du.

**45. Artikulua:**

Edozein pertsona ala erakunde zeinen legezko eskubide eta interesak kirol diziplinazko prozedura bat gauzatzeari eraginak izan ahal baitira, bertara agertu ahal izango da, orduan aurrera probaren jakinarazpen, proposamen eta praktikari dagokionez interesdunaren izaera izanik.

**46. Artikulua:**

Federazioko diziplinazko organoetako ebazpenak motibatuta egon beharko dira, ekintzen erreferentzia eta eskubide oinarriekin eta hauen aurka jarritako errekursoak, hauek aurkeztea zein organori dagokion eta errekurritu ahal izateko epea adieraziko dute.

**47. Artikulua:**

1. Kirol diziplinazko prozeduran interesdunak eragiten dituen probidentzia ala ebazpen oro, hauei ahalik eta eperik laburrenean jakinaraziko zaie, bost (5) lanegunen gehieneko epea kontuan izanik.
2. Interesdunentzako jakinarazpenak bere klubaren bidez harremanerako posta elektronikoan burutuko dira.

**48. Artikulua:**

1. Aurreko artikuluan deskribatutako jakinarazpena alde batera utzita eta lehiaketaren interesa nahiz funtzionamendu hobea kontuan izanik, Euskadiko Eskubaloi Federazioaren Web orrialde ofizialean bere kasuan Lehiaketa eta Apelazio Batzordearen ebazpen zigortzaileak argitaratuko dira.
2. Hala ere, probidentziek eta ebazpenek klubean jakinarazten diren arte interesdunengan ez dute eraginik izango, hurrengo artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

**49. Artikulua:**

Zigor zehatz batek ala hauen metatzeak, partidu baten zehar ezarritakoa, automatikoki beste zigor osagarri bat barne duen kasuan, diziplinazko organoaren jakinarazpen publikoa nahikoa izango da, zigorra betearazlea izan dadin, organoak klubari hau jakinarazteko duen betebeharrari utzi gabe.

**50. Artikulua:**

Jakinarazpenek ebazpenen testu osoa izan beharko dute barne behin betikoa den ala ez, dagozkion erreklamazio ala baliabideen adierazpena, organoa zeinen aurrean aurkeztu beharko bailitzateke eta hauek aurkezteko epea adierazita.

**51. Artikulua:**

Diziplinazko prozedura baten instrukzioan zehar ez ohiko zirkunstantziak gertatuko balira, federazioko diziplinazko organoek aurreikusitako epeen hedapena adostu ahal izango dute, hobeto jarduteko, haien erdia gainditzen ez duen gehieneko denbora-epe bat arte.

**52. Artikulua:**

Federazioko jurisdikzio-organoen aurrean planteatutako eskaerak ala erreklamazioak espresuki hamabost (15) egun gainditzen ez duten epe batean ebatzi beharko dira, ala epe horretan, gutxienez, hau aztertzeko dagokion diziplinazko prozedurari hasiera emango zaio, zein hogeita hamar (30) egun gainditzen ez dituen epe batean amaitu beharko baita. Hauek eskumeneko organoaren idatzizko ebazpenik gabe pasatzen direnean, atzera bota direla ulertuko da.

**53. Artikulua:**

1. Batzordeak aldi berean hitzartzeko ahalmena izango du, espedienteari hasiera ematerakoan, kautelazko neurrien onarpena zein hutsegitearen eraginkortasuna babesteko ala kalte konponezin bat ekiditeko beharrezkoak izango bailirateke.

Neurri hauek espedientea bideratzerakoan eta bere ebazpenera arte iraungo dute, eta interesdunei jakinarazi egin beharko zaizkie dagokion errekursoaren ondoriotarako.

2. Legeek babestutako eskubideen bortxaketa inplikatzeko duen kautelazko neurririk ezin izango da hartu ala aplikatu.

**54. Artikulua:**

1. Interesdunek prozeduraren edozein fasetan bere asmoak alde batera utzi ahal izango dituzte, baina atzera egiteak formulatzen duenarengan soilik izango du eragina.

2. Atzera egitea diziplinazko organoaren aurrean formulatu beharko da, idatziz ala ahoz agerraldiaren bidez, eta azken kasu honetan dagokion izapidea luzatu eta izenpetu beharko da.

3. Atzera egiteak diziplinazko espedientearen amaiera eta artxibatzea ekarriko du, eskaera hori formulatuko ez luketen beste hainbat interesdun egongo liratekeen kasuan izan ezik, ala diziplinazko organoak interes orokorreko arrazoiengatik prozeduraren jarraipena adostuko lukeen kasuan.

## **II. Kapituluua: Kirol Diziplinazko Organizazioarena**

### **55. Artikulua:**

Euskal Eskubaloi Federazioaren diziplinazko ahalaren jardura lehenengo instantzian Lehiaketa Batzordeari dagokio eta bigarren instantzian Apelazio Batzordeari. Hauek gainerako federazio organoei dagokionez erabateko independentziaz gozatuko dute.

### **I. Atala: Lehiaketa Batzordea**

#### **56. Artikulua:**

1. Lehiaketa Batzordea Euskal Eskubaloi Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izendatutako kideen kopuru bakoitiaz osatuta egongo da. Pertsona bakarraz osatutako organoa izan ahal izango da.
2. Batzordeko kideak, zeinek kargua betetzeko behar adina ezagutza bildu beharko baitute, lau (4) urteko eperako izendatuko dira. Epe hori pasatakoan, segidako alditarako berriro hautatu ahal izango dira.
3. Batzordeko kideek Euskal Eskubaloi Federazioaren Zuzendaritza Batzordea eratu ahal izango dute eta Federazioko Lehendakariaren motibatutako ebazpenaren bidez bere kargutik mugitu ahal izango dira.
4. Lehiaketa Batzordeko saiotara Euskadiko Eskubaloi Federazioko Idazkari Nagusia bertaratuko da bileraren akta altxa, onartutako hitzarmenen berri eman eta zigortutakoak erregistratzearen bidez kontrola eramateko helburuarekin.
5. Lehiaketa Batzordeak emandako ebazpenek, lehenengo instantzian bere eskumeneko auziak ebatziko dituzte eta bere erabakien aurka Euskal Eskubaloi Federazioaren Apelazio Batzordearen aurrean Errekurtsoa jarri ahal izango da.

## **II. Atala: Apelazio Batzordea**

### **57. Artikulua:**

1. Apelazio Batzordea Euskal Eskubaloi Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izendatutako kopuru bakoitiaz osatuta egongo da. Pertsona bakarraz osatutako organoa izan ahal izango da.
2. Batzordeko kideak, zeinek kargua bete ahal izateko behar adina ezagutza bildu behar izango baitituzte, lau (4) urteko eperako izendatuko dira. Epe hori pasatakoan, segidako epetarako berriro hautatu ahal izango dira.
3. Batzordeko kideek Euskadiko Eskubaloi Federazioaren Zuzendaritza Batzordea eratu ahal izango dute eta Federazioko Lehendakariaren motibatutako ebazpenaren bidez bere kargutik mugitu ahal izango dira.
4. Lehiaketa Batzordeko saiotara Euskadiko Eskubaloi Federazioko Idazkari Nagusia bertaratuko da bileraren akta altxa, onartutako hitzarmenen berri eman eta zigortutakoak erregistratzearen bidez kontrola eramateko helburuarekin.

### **58. Artikulua:**

1. Apelazio Batzordeak Euskadiko Eskubaloi Federazioaren Lehiaketa Batzordeak emandako ebazpenen aurka jarritako errekurtsio guztiak ezagutzeko eskumena du, baita bigarren instantzian dagozkion Lehiaketa Batzorde ala Lurralde Federazio ezberdinetan funtzio analogoak betetzen dituen organoaren ebazpenen aurka planteatutako errekurtsioak ezagutzeko ere.
2. Apelazio Batzordeak hartzen dituen erabakiek federazio bidea agortuko dute eta hauen berri ematen denetik kontatu beharreko hamabost (15) lanegunen epean Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean Errekurtsioa jarri ahal izango da.

## **III. Kapituluak: Ohiko Prozedurarena**

### **59. Artikulua:**

Ohiko prozedura joko ala lehiaketaren araei dagokionez arau-hauste larri, bere kasuan, eta arinengatik zigorrek inposatzeko aplikatuko da.

Lehiaketa Batzordeak, bere ustetan, arau-hauste larrien kasuan espedientea ez ohiko prozeduraren bidez bideratua izatea adostu ahal izango du lehiaketaren garapen normalerako beharrezkoa denean.

Edozein kasutan, arau-haustek larri ala arinak bezala kalifikatzea espedientearen hasieran adierazten diren froga-baliabideak agerian izanik burutuko da.

### **60. Artikulua:**

Lehiaketa Batzordeak, orokorrean, jokoaren beraren ondorioz jazotako gertaerak ebatziko ditu, bere ezagutza eta ulermen leialaren arabera erreklamazioak, alegazioak, txostenak eta probak aztertuz, audientzia-izapidea derrigorrezkoa izanik.

Partiduaren eta bere kasuan, bere eranskinaren nahiz txostenaren akta entregatzen denean derrigorrezko audientzia-izapidea emantzat ulertuko da. Hau emandakoan, interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak formulatu ahal izango dituzte, baita froga baliabideak proposatu ere, hori guztia dagokion jardunaldiaren amaierarekiko hurrengo astearteko 17:00ak baino lehen.

Epe hori pasatakoan, Lehiaketa Batzordeak ofizioz espresuki eskatzen dituenak baino alegazio gehiago ez ditu onartuko. Ondoren, aldi baterako froga proposamenei buruz ebatziko du, beharraren arabera hauek onartuz ala ez onartuz, eta amaitzeko espedienteari amaiera jarriko dion ebazpena onartuko du, federazio apelazio ala bigarren instantziaren errekursoari utzi gabe.

## **IV. Kapituluua: Ez ohiko Prozedurarena**

### **61. Artikulua:**

1. Ez ohiko prozedura joko ala lehiaketa arau eta kirol arau orokorrentzako arau-hauste oso larrien, eta bere kasuan larrien zigorrak ezartzeko aplikatuko da. Arau-hauste larrien kasuan espedientea ez ohiko prozeduraren bidez bideratzea hitzartuko da, Lehiaketa Batzordeak hala erabakitzen duenean.

2. Edozein kasutan, arau-haustek oso larri ala larri bezala kalifikatzea espedienteari hasiera ematerakoan adierazten diren froga baliabideak agerian izanik burutuko da.

### **62. Artikulua:**

Prozedura ofiziozko Lehiaketa Batzordearen hitzarmenaren arabera hasiko da, edo bestela interesdunak eskatuta, behar bezala motibatutako eta bideratzeko onartutako salaketaren bidez.

Horretarako, balizko arau-hauste baten berri izaten duenean Lehiaketa Batzordeak erreserbatutako informazioaren instrukzioa hitzartu ahal izango du, probidentzia eman aurretik zeinetan espedienteari hasiera ematea erabakiko baita ala, bere kasuan, jardueren artxiboa.

**63. Artikulua:**

1. Prozedura epailearen erabakiaren bidez hasiko da eta proportzionaltasunaren irizpideari jarraiki, Lehiaketa Batzordeak onartu ahal izango ditu, edozein unetan, egokitzat jotzen dituen aldi baterako kautelazko neurriak hartu ahal litzatekeen ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko. Onarpenaren erabakia behar bezala motibatuta egon behar izateaz gainera interesdunei jakinarazi beharko zaie.
2. Aurrekoa hala izanik, kalte konponezinak eragin ahal dituzten aldi baterako neurriak eman ahal izango dira.

**64. Artikulua:**

Instruktoreak fase frogagarriari hasiera emango dio eta interesdunei behar adinako aurrerapenarekin frogak praktikatzeko tokia eta unea jakinaraziko diete. Fase horrek, hamabost (15) lanegun gaindituko ez dituen eta bost (5) baino gutxiagokoa izango ez den iraupena izango du eta honetan edonolako froga baliabideren bidez prozedurarako jarduera garrantzitsuak egiaztatu ahal izango dira.

Interesdunek froga fasea hasi baino lehenagoko edozein unetan edonolako frogaren praktika proposatu ahal izango dute ala espedientearen ebazpen egoki eta zuzenerako interesgarriak gertatzen direnak zuzenean ekarri ahal izango dituzte.

Interesdunek proposatutako probaren berariazko ala adierazi gabeko ukatzearen aurka, hiru (3) lanegunen epean Lehiaketa Batzordearen aurrean erreklamazioa planteatu ahal izango dute, zein beste hiru (3) egun luzaezinen barnean adierazi beharko baita. Erreklamazioa jartzeak inolako kasutan ez du espedientearen bideratzea geraraziko.

**65. Artikulua:**

Lehiaketa Batzordeak, ofizioz ala interesdunak eskatuta, espedienteen metaketa hitzartu ahal izango du izaera subjektibo ala objektibozko zentzuzko eta behar adina nortasun ala analogiarekin lotutako zirkunstantziak gertatzen direnean, zeinek bideratze eta ebazpen bereziak gomendatuko bailituzkete. Metaketaren erabakia interesatuei prozeduran jakinaraziko zaie.

**66. Artikulua:**

1. Praktikaturako jarduerak ikusita eta hogeita hamar (3) lanegun gainditzen ez duen epe batean, prozeduraren hasieratik aurrera zenbatuak, Instruktoarak artxibatzea proposatuko du ala dagokion kargu-orrria formulatuko du honen barne egotzitako ekintzak, gertatutako zirkunstantziak eta balizko arau-haustek

adierazita, baita aplikatu ahal izango liratekeen zigorrak ere. Instruktoarak, justifikatutako arrazoiengatik, ebazteko eskumeneko organoari dagokion epearen hedapena eskatu ahal izango du.

2. Kargu-orrian, Instruktoarak ebazpen proposamen bat aurkeztuko du zein interesdunei hamar (10) lanegunen epean jakinaraziko baitzaie, bertan bere eskubide ala interesak defendatuz komenigarritzat jotzen dituzten behar adina alegazio adierazi ditzaten. Era berean, kargu-orrian, Instruktoarak bere kasuan onartuko ziratekeen aldi baterako neurrien altxatzeari dagokion mantentzea proposatu beharko du.

3. Aurreko atalean adierazitako epea pasatakoan, Instruktoarak, izapide gehiagorik gabe, espedientea Lehiaketa Batzordera igoko du, bere kasuan erantsiko zaizkion aurkeztutako alegazioak ebazteko.

### **67. Artikulua:**

Eskumeneko organoaren ebazpenak kirol diziplinazko espedienteari amaiera jartzen dio eta gehieneko hamar (10) lanegunen epean eman beharko da, zein Instruktoarak espedientea igotzen duen hurrengo egunetik aurrera kontatuko baita.

## **V. Kapituluak: Jakinarazpenak eta Errekurtsoak**

### **68. Artikulua:**

Kirol diziplinazko prozeduretan emandako erabakiak eta ebazpenak motibatuak izateaz gainera interesdunei jakinaraziko zaizkie, kasu bakoitzean dagozkion erabaki ala hitzarmenen adierazpenarekin eta erreklamazio ala baliabideekin, onartzen denetik aurrera kontatu beharreko gehieneko hamar (10) egunen epean, ohiko prozeduraren kasuan, eta bost (5) egunekoa ez ohiko prozeduraren kasuan.

### **69. Artikulua:**

Edozein prozedurarengatik lehenengo instantzian emandako diziplinazko ebazpenak jakinarazten den unearikiko hurrengo egunetik aurrera kontatu beharreko gehieneko hamar (10) lanegunen epean errekurritu ahal izango dira, Euskal Eskubaloi Batzordearen Apelazio Batzordearen aurrean.

### **70. Artikulua:**

1. Errekurtsoen berriazko ebazpena jartzen denetik aurrera gehieneko hogeita hamar (30) egunen epean gauzatu beharko da. Berriazko ebazpenik jarri gabeko epe hori pasatakoan, administrazio-isiltasunarengatik errekurtsoa gaitzetsi egin dela ulertuko da.

2. Aurreko zenbakitan adierazitako epeei dagokionez, lehenengoa erreklamatzeko ala errekurritzen den hitzarmen ala ebazpen erako jakinarazpena burutzen den unearikiko hurrengo egunetik aurrera, eta bigarrena artikulu honetan xedatutakoaren arabera erreklamazioa ala errekurtsioa gaitzetsiak ulertu beharko diren unearikiko hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasiko dira.

#### **71. Artikulua:**

1. Errekurtsioak idatziz formalizatu eta aurkeztuko dira, Euskal Eskubaloi Federazioaren helbide ala egoitzan, Apelazio Batzordera zuzenduta, zeinen saioak ostegunetan 17.00tan burutuko baitira.

2. Osteguneko 17,00ak pasatakoan errekurtsioa aurkeztuko balitz, hau aztertua izango da eta bere kasuan Apelazio Batzordearen hurrengo saioan aztertua izango da.

3. Idazkiek zeinetan errekurtsioak formalizatuko baitira, barne izango dute:

- a. Interesdunaren izena, abizenak eta helbidea, eta bere kasuan, behar bezala bermatutako ordezkatzeko duen pertsona hura identifikatzeko datuak.
- b. Hitzarmen ala ebazpenaren adierazpen garbia, zeinen aurka errekurritzen baita, berariazkoa izango balitz bere kopia erantsiaz, ala, gutxienez, espedientearen zenbakia eta ebazpenaren data adieraziaz zeinen aurka erreklamatzeko ala errekurritzen baita.
- c. Errekurtsioa motibatzen duten alegazioen eta hau zuzentzen duten oinarri ala aginduen azalpena.
- d. Froga izapideak zein, bere kasuan, bigarren instantzian praktikatzeko proposatuko baitira, betiere lehenengo instantzian praktikatu izan ez badira.
- e. Formulazkoak diren nahien adierazpen zehatza.
- f. Errekurtsioa jartzen den tokia eta data, baita errekurtsio-egilearen sinadura ere.

4. Errekurtsioa Euskadiko Eskubaloi federazioan 50 Euroren gordailatzea egin izanaren frogagiriarekin batera aurkeztuko da. Kopuru hori, betiere bere alde erabakitzen denean, interesdunari itzuliko zaio.

5. Errekurtsioa, edozein kasutan, hau jartzen denetik aurrera kontatu beharreko gehieneko hogeita hamar egunen epean ebatziko da.

6. Ez ohiko prozeduran emandako ebazpenaren aurka jarritako errekurtsio bat denean, epea zazpi egunekoa izango da, ala gutxiagokoa aurretiaz hala erabakiko balitz.

#### **72. Artikulua:**

Errekurtsioaren aurkezpenak errekurritzen den erabakiaren betetzea ez du etengo, Apelazio Batzordeak hala hitzartzen duen kasuan izan ezik, ofizioz ala interesdunak hala eskatuta.

**73. Artikulua:**

1. Euskadiko Eskubaloi Federazioaren Apelazio Batzordeak emandako hitzarmen eta ebazpenek federazio bidea agortzen dute eta Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dira.
2. Kirol Justiziaren Euskal Batzordeak emandako diziplinazko hitzarmen eta ebazpenek administrazio bidea agortzen dute, eta aplikagarriak diren jurisdikzio-arauei jarraiki Administrazioarekiko Eskumeneko Auziaren aurrean errekurtsoren objektua izan ahal izango dira aplikagarriak diren eskumeneko arauen arabera.

**74. Artikulua:**

Prozeduraren arloan aplikagarria izango da, izaera osagarriarekin, Euskal Herriko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean eta kirol diziplina arautzen duten Arautegi publikotan, eta, bere kasuan, Euskadiko Eskubaloi Federazioaren Estatututan nahiz administrazio prozedura komuna arautzen duten arauetan aurreikusitakoa.



Sergio Barcenilla

Euskal Eskubaloi Federazioko Presidentea



Josune Yagüe

Euskal Eskubaloi Federazioko Idazkaria